



**LESAKAKO UDALA (NAFARROA)**  
**AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)**

**LESAKA**

**Baso-aprobetxamenduaren hirugarren enkante publikoa, hasierako prezioa  
%20 jaitsita.**

Lesakako Udalak, behar bezala baimendurik, gutun-azal itxiaren bidezko enkante publikoa egingen du, oihan lotearen aprobetxamendua esleitzeko, ezaugarri hauekin:

–Lotea: Mairubaratzeta alderdian (bakantzea).

|                            |  |
|----------------------------|--|
|                            | LOTEA  |
| Alderdia                   | Mairubaratzeta                               |
| Zuhaitz mota               | P. menziesii<br>P. sitchensis<br>L. kaemferi |
| Zuhaitz kopurua            | 2.726  |
| Unadak                     | 30be, 31bde, 32b, 33bcdf, 34acef, 35cef      |
| Tratamendua                | Bakantzea                                    |
| Enbor txiki m <sup>3</sup> | 658,21                                       |
| Zura m <sup>3</sup>        | 1.974,63                                     |
| Denetara m <sup>3</sup>    | 2.632,84                                     |
| Balorazioa                 | 48.444,19 euro                               |

Enkantean parte hartzeko proposamenak Lesakako Herriko Etxeko Idazkaritzan aurkeztuko dira, eta haiekin batera prezioaren %2 behin-behineko fidantzatako pausatu izanaren gordekina eta baldintza ekonomiko-administratiboen agirian sarturiko erantzukizunpeko aitortpena. Horretarako, hogeit hamar egun naturaleko epea izanen da, iragarki hau Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Baldintza tekniko eta ekonomiko-administratiboen agiriak Lesakako Herriko Etxeko Idazkaritzan daude ikusgai, interesdunen eskura.

Lesakan, 2020ko abuztuaren 11n.



Ladis Satrustegui Alzugaray